*Presoen aldeko mobilizazio eguna*

# Parte hartzea handia izan da presoen Euskal Herritzatzearen aldeko protestan

*Jende askok bat egin zuen 15 minutuko geldialdiarekin eta bilkurekin*

**Tokian tokiko erantzuna ezberdina izan den arren, orokorrean euskal presoen Euskal Herriratzearen aldeko protesta egunak erantzun zabala izan du. Milaka pertsonak egin zuten 15 minutuko geldialdia, eta kontzentrazio eta ekimen ezberdinetan ere jende ugari bildu da. Senideak elkarteak «arrakastatsutzat» jo du ekimena.**

Erredakzioa / Donostia

EUSKAL HERRIKO hiri eta herri gehienetan nabaritu zen euskal preso politikoen senideek presoen Euskal Herriratzearen alde antolatutako mobilizazio eguna. Senideak elkarteak atzo iluntzean ordurarte bildutako datuen berri eman zuen, eta horien arabera, milaka pertsona irten ziren atzo kalera presoen eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzeko.

Gipuzkoako herriei dagokienez, erantzuna zabala izan zen. Taberna eta denda gehienak itxita egon ziren, esaterako, Azpeitia, Hernani, Usurbil, Deba, Mutriku edo Lasarten. Billabonan, berriz, goizeko 9etatik hasita megafonia egon zen egun osoan zehar jarrita gaueko 23:00ak arte, eta denda guztiak itxita egon ziren. Zizurkilen ere taberna eta denda ia guztiek itxi zituzten ateak.

Antolatu ziren kontzentrazioetan ere jendearen erantzun zabala izan zen. Hernanin kartelada egin zen goizeko 8etatik 12etara eta udaletxearen aurrean egindako kontzentrazioan ehundaka lagun bildu ziren. Antzuolan egindako kontzentrazioan 80 lagun inguru bildu ziren herriko plazan.

Nafarroan ere hainbat jende bildu zen kalean euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko. Aezkoan, esaterako, kontzentrazioa egin zuten Arrobi errepidean eta guardia zibilez inguraturik egon ziren uneoro. Berriozarren karteladak egin zituzten 9etatik 12etara bitartean autobus geltokietan eta eguerdian egindako kontzentrazioan 60 lagun bildu ziren.

Etxarri-Aranazen, berriz, erabatekoa izan zen geldialdiari komertzioek emandako erantzuna.

Senideek emandako datuen arabera, Gasteizko udaletxearen aurrean 300 pertsona bildu ziren, eta Parte Zaharreko komertzioen artean itxialdia erabateko izan zen. Laudion ere erantzuna oso zabala izan zela jakinarazi zuten senideek. Otxandion, bi komertziok izan ezik beste guztiek ateak itxi zituzten.

Baionan, berriz, hainbat komertzio eta tabernak erantzun zioten Senideen galdialdiari.




**Donostiako Udaltxearen aurrean konzentrazio jendetsua egin zen atzo.**
JAGOBA MANTEROLA

**Gasteizko Legebiltzarraren aurrean HBko ordezkariek egindako bilkura.**
JOSEBA OLALDE

## Hainbat udalek bat egin dute

Instituzioen artean udaletxeak izan ziren atzoko mobilizazioaren aurrean erantzun zabalena eman dutenak. Hala, aipatzeko da Donostiako udalbatzak geldialdiarekin bat egitea erabaki zuela HB eta EAJko zinegotzien babesarekin eta EA eta IUkoen abstentzioarekin. Beste hainbat herritako udalek ere bat egin zuten Euskal presoak Euskal Herrira leloarekin. Azpeitiko udalak deia egin zuen parte hartzeko eta bertako EAJ, EA eta HBko zinegotziak, EAJko alkatea barne, «Dispertsiorik ez» zioen pankartaren atzean bildu ziren. Mutrikuko EA eta HBko zinegotziek ere konzentrazioan parte hartu zuten. Lezo, Zizurkil, Antzuola, Zestoa eta Zarauzko udaletan geldialdiak egin ziren. Beste udaltxe ugaritan geldialdian parte hartzearen aldeko jarrera erabateko izan ez den arren, asko izan dira udaletxe kanpokaldean bildu eta konzentrazio egin duten langileak.

**Enpresetako erantzuna** • Enpresetan atzoko geldialdiak izandako erantzunari dagokionez, LAB sindikatuak eskaini zituen datuak, eta enpresa askotan paroa eta kontzentrazioak izan zirela ikus daiteke.

Gipuzkoako datuei dagokienez, Arrasateko kasua aipa daiteke. Mondragon taldeko hiru enpresatako langileak Fagor eraikinaren aurrean batu ziren presoen Euskal Herriratzearen alde. Asmobi enpresa ere itxi egin zen, eta Roneo eta Garbnei enpresako zenbait langile ere kalera irten ziren. Oñatiko Fagor enpresako langileek ere geldialdia egin zuten. Antzuolan ere hiru enpresak bat egin zuten Senideen deialdiarekin. Bergaran Lazpiur, Metraga eta beste zenbait enpresak ere geldialdia egin zuten. Goierri aldean aipatzekoa da CAF enpresan bertako langileek batzarra egin zutela, eta parte hartu zuten 247 langileetatik 243 geldialdiaren alde agertu eta kalera irten zirela. Indar enpresan ere asanblada egin zuten. Azpeitian Danona eta Biele enpresetan langileak kalera irten ziren.

Nafarroako datuei dagokienez, LAB sindikatuaren arabera, 24.000 langilek parte hartu dute presoen Euskal Herriratzearen alde eginiko ekimenetan, bai geldialdian parte hartzen edo propaganda banatzen eta abar. Osasunbidea, Iparlat, Telefonica, Volskwagen, Tecal 40, Schindler igogailuak eta beste hainbat enpresetako langileek egin dute bat geldialdiarekin. Etxarri Aranazen Ufesa enpresaren aurrean konzentrazio jendetsua egin zen.

Komunikabideen artean ere izan du eragina presoen Euskal Herriratzearen alde eginiko geldialdiak. Hala, Euskadi Irratiak 12.00etatik 12.15 bitartera iragarkiak jarri zituen, eta Donostiako Herri Irratiak euskal musika jarri zuen ordulaurden horretan. EUSKALDUNON EGUNKARIAKO langileek kontzentrazioa egin zuten Andoaingo egoitzaren kanpoaldean.

**HBren protesta Legebiltzarrean** • Herri Batasunako Gasteizko legebiltzarkideek bat egin zuten Senideen deialdiarekin eta, bertako zenbait langile eta Herri Batasunako Mahai Nazionaleko beste zenbait ordezkarirekin batera konzentrazioa egin zuten Parlamentu kanpokaldean. Bertan, Xabier Zubizarreta Mahai Nazionaleko kideak esan zuenez, «ezinbestekoa da presoen Euskal Herriratzea lortzeko ekimen berriak martxan jartzea, presoen egoera oso larria baita». Zubizarretak Espainiako Gobernuaren jarrera salatu zuen, «beraien legea ere ez baitu betetzen». Baina, Gobernuaren jokaera ezezik euskal instituzioen jarrera ere salatu zuen, «pauso txikiak baino ez baitituzte eman». Horregatik, herritarrei mobilizatzeko deia egin zien HBk Espainiako Gobernuaren «jarrera inmobilista» aldatu beharra dagoela aldarrikatuz. ✗

## Presoek ere ekimenak egin dituzte

MADRILGO Carabanchel espetxean dauden 32 euskal presoek bat egin zuten hamabost minutuko lanuztearekin, eta hala, eguerdiko 12:00etatik 12:15 bitartean espetxeko patioan bi konzentrazio egin zituzten. Horretarako presoak Euskal Herrian batzearen aldeko parkarta eta afitxak zabaldu zituzten.

Atzoko deialdiari jarraikiz bakarrik ez, bestela ere espetxeetako borrokaldiak aurrera jarraitzen du. Jaengo presoek esaterako, joan den ekainaren 8an hasi zuten lau eguneko txandakako gose greba, eta oraingo txanda Gotzone Lopez de Luzuriaga Aguraingo presoak hartu du. Bestetik, bi preso espetxez aldatu dituzte diligentziak direla eta. Beasaingo Jokin Aldanondo presoa une honetan Valdemoroko espetxean dago Algeciraseko espetxera bidean. Aldanondok Burgoseko espetxean du destinoa. Bestetik, Paula Garcia Langraizera ekarri dute epaiketa batean parte hartzeko, baina epaiketa atzeratu egin da.

Bestalde, kalean ere aurrera jarraitzen dute presoen aldeko ekimenak. Donostiako Antigua auzoko Antiguara plataformak uztailaren 4an presoen eguna antolatu du. Goizetik hasita gauera bitartean ekitaldi ugari izango dira Antiguan; esaterako, autokarabana, bazkari herrikoia, mus txapelketa, jaialdia...